

BAKEAREN ALDEKO



BASTEA

2005eko Urtarrilaren 24tik 30era

Bilbao

PAZ

y tolerancia

Bakea eta

TOLERANTZIA



ITAKA

ESCOLAPIOS

FUNDAZIOA


Aurkibidea

Testua: “Sinesten baduzu”	2
Olerkia: “La voz de las armas”	3
10 galdera Bakea eta Giza Eskubideen gainean	4
10 ideia Bakearen alde lan egiteko	5
10 film	6
Haur eta Gazte Literaturako Dekalogo	7
Testua “Baldin eta umea”	8
10 ikas-material Bake-Heziketarako	9
10 muntaia ikusi eta entzuteko	10
Gandhi azken otoitza	10
10 liburu	11
10 esaldi bibliko	12
10 leku joateko bake kontuak direla eta	13
Antonio Flores-en “No dudaría” kantua	17
10 film gehiago ikasgelan lantzeko	18
“Amets” kantua (Raimonen “Al Vent”)	18
10 webgune	19
10 pentsamendu	20
10 esaldi bakeari buruz	21
Nola aldarrikatu munduan Justizia eta Bakearen Berri Ona?	22

PAZ
y tolerancia

Bakea eta

TOLERANTZIA



Sinesten baduzu ...

Sinesten baduzu irribarreak armak baino ahaltzuagoak direla, sinesten baduzu luzatutako esku baten indarrean, sinesten baduzu gizakiok batzen gaituena bereizten gaituena baino sendoagoa dela, sinesten baduzu desberdinak izatea aberastasuna dela eta ez arriskua, ikasi baduzu besteei maitasun izpi batez begiratzen, ikasi baduzu susmoaren ordeztaropena aukeratzen, uste baduzu besteari itxaron gabe lehenengo pausoa zeuk eman behar duzula, bihotza urtzen baduzu oraindik ume baten begiradak, gauza baldin bazara besteen pozaz pozteko, besteenganako bidegabekeriak zureganakoak bezainbeste asaldatzen bazaitu, aurrean jarri dizuten anaiatzat jotzen baduzu atzerritarra, maitasunagatik denbora apur bat emateko gauza bazara, besteen laguntza onartzen baduzu, ogia besteekin partekatzeaz gain bihotzaren zati bat eransten badiozu, uste baduzu barkamena mendekua baino ahaltzuagoa dela, ikasi baduzu besteen zorian kantatzen eta besteen alaitasunaz dantzatzen, denbora galarazten dizun errukarriari irribarrea galdu gabe entzuten badiozu, kritikak onartzen badituzu aurka egin gabe eta ikasgaia ateraz, zurearekin bat ez datozen iritziak haintzat eta ontzar hartzen ikasi baduzu, zure aitzakiak besteei egoztea errefusatzen baduzu, lagun hurkoa oroz gain anaiatzat jotzen baduzu, amorrazioa ahuleziatzen eta ez sendotasunaren sintomatzen jotzen baduzu, kalteua izan nahiago baduzu besteei kalte egin baino, zeure ondoren hondamendia etortzea errefusatzen baduzu, behartsu eta zapalduen alde bazaude zeure burua heroizatzen hartu gabe, uste baduzu maitasuna dela disuasiorako indar bakarra, bakea posible dela sinesten baldin baduzu... ORDUAN HALAXE IZANGO DA.

La voz de las armas

Qué dios tan hermoso debe de morir
y qué belleza tan profunda se disuelve
en ese preciso instante,
cuando el silencio es interrumpido
por el clamor de una bala
que llega a besar
la frente de un hombre.
Y como es posible
que después el que dispara,
pueda seguir respirando
al ver como las hojas
que arrancó de un libro,
acarician la piel del aire
mientras el cuerpo
se desliza hasta la tierra
vencido por la fuerza de la muerte.
Pero qué dios tan hermoso debe de morir
y qué belleza tan profunda se disuelve
para que sigan fabricando
una voz para las armas,
no todos los que fueron volverán,
ni tampoco todos los que
ya estaban seguirán estando,
ninguno de ellos nació
para que le arrebatasen la vida,
pero algunos intereses
nos quieren convencer de lo contrario.

ROMUALDO RAMÍREZ GARCÍA

10

GALDERA

Bakea eta giza eskubideen gainean:

1. Zenbat giza eskubide daude, zeure ustez?
15 30 50 100
2. Herrialde guztiek sinatu al zuten Giza Eskubideen Deklarazioa? (Ezetz jartzekotan, esan non ez diren betetzen, zure ustez)
BAI EZ
3. Giza Eskubideak leku guztietan betetzen al dira, zure ustez?
BAI EZ
4. Euskadin eskubide gehienak betetzen direla uste al duzu?
BAI EZ
5. Giza Eskubideak inguruan errespetatu daitezela laguntzen al duzu? Nol?
BAI EZ
6. Giza Eskubideen defentsan konpromezua hartzea pentsatu al duzu inoiz?
BAI EZ
7. Giza Eskubideei buruz ondo informatuta zaudela uste al duzu?
BAI EZ
8. ONUren lana beti humanitarioa dela iruditzen zaizu?
BAI EZ
9. Beharrezkoa al da armadaz baliatzea eskubideak defendatzeko?
BAI EZ
10. Giza-Eskubideetan bidegabekeriaren baten biktima izan den inor ezagutzen al duzu inguruan?
BAI EZ

10

Ideia

bakearen alde lan egiteko

1. Inguruan ditugun arma fabrikak ezagutu eta gure jarrera adierazi.
2. Bakearen alde lan egiten duten talde eta mugimenduak gonbidatu edo haiengana hurbildu ezagutzeko.
3. Telebistak igortzen digunari so egin, jarraipenezko fitxa eta guzti: ordua, kanala, hitzezko indarkeria, indarkeria fisikoa, hilketak, gaiztakeriak, gorrotoak, gerrak,... Ondorioak igorri telebistara, prentsara, irratira.
4. Irudimena landu. Zer gertatuko litzateke soldaduek inongo gerretan borrokatu nahi izan ez balute? Edo inork armak erabiltzen ikasiko ez balu? Edota munduko ume guztiak gerrak geldiaraztera joango balira?
5. Hiztegia landu: ikasleek berek bakea abiapuntutzat harturik egindako gurutzegramak, hieroglifikoak, letra-zopak, igarkizunak...
6. Atarian edo etxerako bidean bakearen aldeko kartel edo mezuak jarri.
7. “Mezu-karameluak” prestatu, bakeari loturiko esaldiren bat duen paper batean bildurik, eta umeen artean banatu. Bakeari buruzko pegatinak edo txapak egin eta Bakearen aldeko ibilaldi edo globada batean partitu.
8. Bakearen omenezko monumentu bat ezarri, eskolan nahiz inguruko toki publikoren batean (buztina, hondakin-materialak, papera, zura...)
9. Zineaz, liburuez eta ikusentzunezko muntaiez baliatu baloreetan oinarritutako hezkuntza lantzeko.
10. Bakea igorri ingurura, mugitzen garen alor guzti-guztietara, eta ez amaitutzat jo inoiz bakearen aldeko lana.

...

10 Film

(lan egiteko fitxak Itaka Fundazioan eskura ditzakezue)

1. Flores de otro mundo (Itziar Bollain)
2. Las cartas de Alou (Montxo Armendariz)
3. Missisipi Masala (Mira Nair)
4. La delgada línea roja (Terrence Malick)
5. ¡Sara, Sara! (Renzo Martinelli)
6. Antes de la lluvia (Milcho Manchevski)
7. La vida es un largo río tranquilo (Etienne Chatiliez)
8. Dersu Uzala (A. Kurosawa)
9. Cuando pasan las cigüeñas (Kalatozov)
10. American History x (Tony Kaye)



Haur eta gazte literaturako Dekalogoia

“...Ezin ukatuzkoa da liburu inprimatuak egin duen ekarpena, gizakiak batu eta bakea, justizia eta elkartasuna bezalako baloreak sustatzen dituen gizabidearen idealak zabaltzeko ahalegin handi horri begira. Liburuak dira –aldaketarako duten ahalmenagatik eta kultura arteko dimentsioagatik- elkarbizitzarako eta giza-eskubideen errespeturako atea. Eta bereziki haur eta gazteentzako literatura, ahozko ipuinetatik hasi eta zientzia-fikziozko eleberrietaraino, zeren, inguruan ezin ikus ditzaketen elkarbizitza eta tolerantzia mailako ereduak eskaintzen baitizkie gaur egungo haurrei. Setakeriak beteriko mundu honetan, gero eta globalizazioaren eta elkarren menpekoagoak diren gizarte gero eta zatikatuago hauetan, liburuak ihesbide ederra eskaintzen dute irudimenezko munduetan dauden kultura arteko eredueta eta gatazkak gainditzeko konponbide baketsuetara jotzeko. Ez dira errealitateko munduak, baina arras eraginkorrak suerta daitezke geure askatasunen eta besteen askatasunen inguruko kontzientzia sortzeko. Eta ilusioz eta etorkizunez gainezka daude, bihozberatasunez eta langun hurkoaren irudiez beterik. Horregatik, Paradisua irudikatzean, Jorge Luis Borgesek liburutegi baten irudia erabili zuen, hantxe baitago gorderik gizateriaren oroimena, eta honen bitartez, *“gutxienez geure itxaropenaren antz apur bat izango duen etorkizuna eraikiko dugu”*. (LIBROS, DERECHOS HUMANOS Y CULTURA DE PAZ. José Tuvilla Rayo.)

1. Damon, Emma. *Cada uno es especial : un libro para levantar y mirar*. [S. l.] : Beascoa Internacional, 1995. [7] orr., [4] orr. pleg. ISBN 84-488-0227-6
Haurrak-Gaiak: Dibertsitatea; Bazterketarik eza
Kokapena: Udal Liburutegia. Otxarkoaga, San Adrian
(Una mirada al mundo; 4) ISBN 84-7426-554-1
Haur eta Lehen Hezkuntza (1. zikloa)
Gaiak: Gatazkak gainditu
3. Steadman, Ralph. *El puente*. Valladolid : Miñón, 1988. [29] orr. ISBN 84-355-0431-X
Lehen Hezkuntza (1. eta 2. zikloak)
Gaiak: Gatazkak gainditu ; Laguntasuna
4. Cañizo, José Antonio del. *A la busca de Marte el guerrero*. Bartzelona [etc.]:

- Noguer, 1985. 118 orr. (Cuatro vientos; 45) ISBN 84-279-3151-4
Lehen Hezkuntza (2. eta 3. zikloak)
Gaiak: Desarmaea; Indarkeriarik eza; Lan-kidetzatza.
Kokapena: Udal Liburutegia. Begoña
5. Druon, Maurice. *Tistú, el de los pulgares verdes*. Bartzelona : Juventud, 2002. 152 orr. (Juventud) ISBN 84-261-3250-2
Lehen Hezkuntza (3. zikloak) eta DBH (1.).
Gaiak: Lankidetzatza; Antimilitarismo,
Kokapena: Udal Liburutegia. Begoña, Otxarkoaga, Errekalde, Deustu, San Inazio, Zorrotza, San Frantzisko, San Adrian.
6. Briggs, Raymond. *Cuando el viento sopla*. Madril: Debate, 1983. [19] orr. ISBN 84-7444-109-9
DBH-Gaiak: Desarmaea; Maitasuna; Nazioarteko krisia
Kokapena: Udal Liburutegia. San Inazio (Marrakzi bizidunetan ere eskura daiteke.)
7. Briggs, Raymond. *El general extranjero de hojalata y la dama de hierro*. Madril: Debate, 1985. [46] orr. (Biblioteca verde) ISBN 84-744-155-2
ESO-Gaiak: Gerraren irrazionaltasuna; Diktaduren izua
8. Bennett, Jack. *El viaje del "Lucky Dragon"*. Madril: S.M., 1986 . 162 orr. (El Barco de Vapor. Serie Roja; 85) ISBN 84-348-1655-5 **ESO-Gaiak:** Lankidetzatza
Kokapena: Udal Liburutegia. Zorrotza, Begoña
9. Bastida, Anna. *Hazañas bélicas, guerra y paz: guía didáctica ESO*. Bartzelona: Octaedro: Intermón, 1997. 40 orr. ISBN 84-8063-258-5 **DBH eta Batxilergoa**
Gaiak: Gerrako heroien zereginaren desmitifikazioa ; Gerren alternatibak, kausak eta ondorioak
9. Barrio González, Miguel Angel del; Sánchez Sánchez, Julio Javier. *Artesanos de la paz*. Madril: San Pío X, 1994. 224 orr. ISBN 84-7221-329-3
DBH (1. eta 2. zikloa) eta Batxilergoa
Gaiak: Tolerantzia; Gogoetak, kantuak eta olerkiak ; Ipuinak, kondairak eta alegiak; Prentsa albisteak; Denborapasa

Baldin eta umea

Baldin eta umea ingurukoak kritikatzten bizi bada kondentatzen ikasiko du, baldin eta umea liskar giroan bizi bada borrokatzen ikasiko du, baldin eta umea lotsatuta bizi bada errudun sentitzen ikasiko du, baldin eta umea tolerantzia giroan bizi bada tolerante izaten ikasiko du, baldin eta umea estimulatuta bizi bada konfiantza hartzen ikasiko du, baldin eta umea ingurukoek estimatuta bizi bada estimatzen ikasiko du, baldin eta umea berdintasun giroan bizi bada justua izaten ikasiko du, baldin eta umea segurtasun giroan bizi bada fedea hartzen ikasiko du, baldin eta umea onespén giroan bizi bada bere buruaz fidatzen ikasiko du, baldin eta umea besteek onartuta eta lagunez inguratuta bizi bada munduan maitasuna aurkitzen ikasiko du.

Ikas-material Bake-heziketarako

1. Jares, Xesús R. *Educación para la paz: su teoría y práctica*. 2. ed., zuz. eta zab. Madril: Ed. Popular, 1999. 267 orr. (Urgencias; 3) ISBN 84-7884-203-9
2. Lederach, John Paul. *Educar para la paz: objetivo escolar*. 3. ed. Bartzelona: Fontamara, 1986. 131 orr. (Paz y conflictos) ISBN 84-7367-238-0
3. Toffler, Alvin eta Heidi. *Las guerras del futuro*. 2. ed. Bartzelona: Plaza & Janés, 1996. 416 orr. (Tribuna; 106) ISBN 84-01-45101-9
4. Asociación Pro Derechos Humanos de España. Seminario de Educación para la Paz. *A(r)memos la Paz: unidad didáctica (gastos militares y necesidades humanas)*. Madril: Asociación Pro Derechos Humanos, 1990. 1 karpeta. ISBN 84-4046-376-6 (12 urtetik gorakoentzako Unitate Didaktikoa)
5. Bastida, Anna. *Desaprender la Guerra: una visión crítica de la educación para la paz*. Bartzelona: Icaria, 1994. 191 orr. (Icaria Antrazit; 67) ISBN 84-7426-221-6 (12tik gorakoentzat).
6. Sánchez Sánchez, Antonio; Fernández Herrería, Alfonso (Edit.). *Dimensiones de la educación para la paz: teoría y experiencias*. Granada: Granadako Unibertsitatea, 1996. 167 orr. (Eirene; 4) ISBN 84-338-2203-9
7. Alboan. “Munduko Hiritarrok” hirugarren urtea. EJ Etxebizitza eta Gizarte-Gaietarako Saila. *Ahimsa. Manejo y resolución pacífica de conflictos*. Lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako jarduera-gida.
8. Iturralde Eskola. *Monográfico de Educación para la Paz y DDHH*.
9. Itaka- Escolapios Fundazioa. *Semana de la Paz*. Lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako ikas-materialak
10. Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundea. *Carpeta didáctica: educarnos en la tolerancia*. ISBN 84-922770-0-9

10

Muntaia Ikusi eta entzuteko

1. Lorman, Josep. *Así acaba la vida: guía didáctica*. Bartzelona: Claret, 1982. 14 orr. (Audiovisuales Claret; 63) ISBN 84-7263-245-8.
2. *Así no juego*. CLARET.
3. “Isla” Lantaldea. *Dad una oportunidad a la paz*.
4. *El bolígrafo pistola: la violencia es cosa de todos*. Bartzelona: Don Bosco, [19--?]. Diaporama (Parábolas del siglo X).
5. El coronel jardinero. EDEBÉ.
6. Hermano contra hermano.
7. La flor y la metralla. CENTRAL SALESIANA.
8. Ligeramente naranja. PAULINAS.
9. Proceso a los fuertes. ECOE.
10. Sacadme de aquí. EDEBE.

Gandhiren azken oititza

Nekatuta egonda ere, oi gizon, ez ezazu atsedetik har; ez geldialdirik egin bakarkako borroka horretan, aurrera jarraitu etenik gabe.

Bidezidor nahasi eta korapilatsuetan barna ibiliko zara eta bizitza hits batzuk besterik ez dituzu salbatuko. Oi gizon, ez galdu fedea, ez ezazu atsedetik har.

Zeure bizita ere agortu eta deuseztuko da, eta arriskuak ugaldtu ibilbi-dean. Oi gizon, neke horiek guztiak jasan, ez ezazu atsedetik har.

Jauzi egin eragozpenen gainetik, nahiz eta mendiak baino handiagoak diren eta aurrerago zelai ihar eta mortuak besterik ez dauden. Oi, gizon, ez ezazu atsedetik har zelai haietaraino iritsi arte.

Munda ilunduko da eta zeuk isuriko duzu argia bere gainean iluntasuna aienatu arte. Oi gizon, bizitzak ihes egingo balizu ere, ez ezazu atsedetik har.

10

Liburu gehiago

1. Benson, Bernard. *El libro de la paz*. Esplugues de Llobregat: Integral, 1982. 212 p. ISBN 84-85351-14-2
2. Vázquez Figueroa, Alberto. *Sicario*. Bartzelona: Plaza & Janés, 1991. 247 orr. (Éxitos). ISBN 84-01-322378-9
3. Benedetti, Mario. *Pedro y el capitán: (pieza en cuatro actos)*. Madrid: Alianza, 1986. 86 orr. (El Libro de bolsillo. Literatura; 1171). ISBN 84-206-0171-3 (Euskaraz ere argitaratuta dago)
4. Buero Vallejo, Antonio. *La doble historia del doctor Valmy; Mito*. Madrid: Espasa-Calpe, 1992. 240 p. (Austral. Literatura; 280). ISBN 84-239-7280-1
5. Cámara, Helder. *Espiral de violencia*. 6ª ed. Salamanca: Sígueme, 1978. 81 orr. (Pedal; 83). ISBN 84-301-0321-X
6. Camus, Albert. *Los justos: obra en cinco actos*. Madrid: Alianza, 1999. 139 p. (El Libro de Bolsillo. Biblioteca de autor; 658). ISBN 84-206-3695-9
7. Fallaci, Oriana. *Nada y así sea*. 14ª ed. Bartzelona: Noguer, 1990. 319 orr. (El documento vivo). ISBN 84-279-3818-7
8. Fromm, Erich. *El corazón del hombre: su potencia para el bien y para el mal*. 2ª ed. Mexiko: Fondo de Cultura Económica, 1967. 179 orr. (Colección popular; 76).
9. King, Martín Luther. *La fuerza de amar*. 6ª ed. Bartzelona: Aymà, 1969. 161 p. (De todo el mundo).
10. Juergen Schultz, Hans. *Testigos de la no violencia activa*. Madrid: Sígueme, 1972. 199 orr. (Testigos del hombre; 12).

10

Esatera bibliko

1. “Bide berean batu dira Urrikalmendua eta Egia; Zuzentasunak eta Bakeak elkarri musu eman diote” (Sal 85, 11)
2. “Justiziak bakea ekarriko du, patxada eta konfiantza betiko” (Isaias 32, 17)
3. “Ez dezazuela uste bakea ekartzera etorri naizenik lurrera. Ez naiz etorri bakea ekartzera, ezpata baizik” (Mateo 10, 34)
4. “Edozein etxetan sartzen zaretela, lehen esan: Bakea izan bedi etxe honetan” (Lukas 10, 5)
5. “Ekin diezaiegun beraz bakea sustatzen duten gauzei eta elkarren eraikuntzarako direnei” (Erromatarrei 14, 19)
6. “Eta etorririk bakea iragarri dizue, bakea zuei urrunekoei eta bakea haiei hurbilekoei” (Efesoarrei 2, 17)
7. “Eta estimu handitan eduki ditzazuen, egiten duten obragatik. Bizi bakean elkarren artean” (1 Tesalonikarrei 5, 13)
8. “Eta nire herriak bakea izango du egoitza eta bizileku” (Isaias 32, 18)
9. “... Espirituaren frutua da maitasuna, alaitasuna, bakea, pazientzia, adeitasuna, ontasuna, fidelitasuna.” (Galaziarrei 5, 22)
10. “Dohatsuak bortitzak ez direnak, haiek lurra heredatuko baitute”

10

Leku joateko

(Gizarte mugimenduak, GKE, Elkarteak...) Bake kontuak direla eta

1.

Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea

Posta Kutxatila 10.152 • 48080 BILBAO

☎ 94 416 39 29 ☎ 94 415 32 85 • gesto@gesto.org • www.gesto.org

Bakearen Aldeko Koordinakundea plataforma bakezale bat da, hiritarra, unitarioa, pluralista eta independentea. Erakundea gizarte zibilaren erantzun antolatua bat da, gizarte honentzako usteko xede politiko batzuen izenean euskal eta nafar herriek pairatzen duten indarkeria etengabeari aurre egitera zuzendua.

Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea **bakezalea** da, zeren eta, Euskal Herrian gertatzen den indarkeria espezifiko horretan kontzentratzen bada ere, ez baitu baztertzeko bake orokorragoaren aldeko lana. Bakearen Aldeko Koordinakundearen ustez, bakea lortzeko bide bakarra jarrera bakezaleak erabiltzea izango da. Horregatik, Bakearen Aldeko Koordinakundeak behin eta berriz aipatzen ditu Mahatma Gandhi eta beraren indarkeriarik ezaren filosofia.

Hiritarra da hiritarren artean sortu zelako, indar politikoek indarkeriaren aurkako lehen adostasuna Ajuria Eneko akordioan islatu baino lehen. Oso hiritarra da gero eta gehiago errotu delako euskal gizartean,

2.

Elkarri Areatza 5, Bulegoa 209 • 48005 Bilbao

☎ 94 479 03 16 ☎ 94 415 80 03 • bizkaia@elkarri.org • web: www.elkarri.org

Elkarri da elkarrizketa eta akordioaren aldeko gizarte mugimendua Euskal Herrian. 1992an jaio zen, euskal gatazkari irtenbide baketsu eta elkarrizketatua emateko eredia aldarrikatu eta bultzatzearen. Erakunde anitza eta independentea da; 3.000 kide eta 100 taller lokalek osatzen dute, Euskal Erkidego Autonomoko zein Nafarroako herrietan eta auzoetan, baita Madrilan, Bartzelonan eta Bruselasetan. Horietan 800 kide bolondresak egiten dute lan. Autofinantzaketa % 85ekoa da.

Azken hamar urte hauetan, gizarte mugimendu honek indarkeriarik-ezaren, elkarrizketaren eta

gizarteak berak terrorismoaren aurrean duen erantzukizunari buruzko kontzientzia landuz, batez ere terrorismo hori gizartearen izenean gauzatzen delako. **Unitarioa** da era guztietako taldeak eta pertsonak batzen dituelako helburu komun eta bakar baten inguruan: bakea lortzea Euskal Herrian, Koordinakunde honen Funtsezko Ildeotan azaldutako printzipioetan oinarriturik. **Pluralista** da bertan era guztietako talde eta pertsonak sartzen direlako, baldin eta, proiektu politiko eta ideologiko desberdinak defendatu arren, bat datozen funtsezko eta premiazko xede batean, hots: indarkeria orain eta hemen gaitzestea, dela gatazkak konpontzeko bide gisa, dela jarduera politiko gisa.

Eta **independentea** da Bakearen Aldeko Koordinakundea plataforma hiritar-sozial bat delako beste edozeren gainetik, gobernuz kanpokoa da eta ez du inolako mendetasunik, ez ideologikoki ez ekonomikoki, inongo alderdi, instituzio, talde edo elkarterekin, nahiz eta beraiekin elkarlanean aritzeko eta hitz egiteko prest eta irekita dagoen.

giza eskubideen alde lan egin du, horretarako hamaika ekimen abiaraziz, bai jendaurrean zein ezkutuan, gizartearen oinarrian zein herri-herri, hala nola politikaren eremuan.

2002. urteko abenduaren 21ean Elkarri bere hamargarren urteurrena ospatu zuen. Data berberetan indargabetu zen 2000 urteko ekainean onartutako Zubigintzan delako plan-estrategikoa eta 2003 urteko martxoaren 1ean bukatu den VII. Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion. Batzar honen helburua 2003-2005 urteetarako plan estrategiko berri bat onartzea izan da.

13

3. Bakerako Lankidetza Asanblada - Euskadi

Calixto Diez, 7, 2.a, 16. bulegoa • 48012 Bilbao.

☎ 944 44 32 07 • blb@acpp.com • http://www.acpp.com

Irabazi-asmorik gabeko GKE da, laikoa, edozein aukera politikotatik at dagoena, balore demokratikoen defentsa justizia sozial eta ekonomikoan oinarritzen duena, eta 1991n sortu zenez geroztik, bakezaletasuna, tolerantzia eta elkarrizketaren aldeko apustu sendoa egin duena. Euskadin

2001ean hasi ginen lanean eta gaur egun, Bilbon dugu bertoko egoitza nagusia.

Hezkuntzaren arloan, bake-heziketako jarduerak sustatu eta garatzeko azterketa eta prestaketa lanak egiten ditugu.

4. Bakeaz Santa María, 1-1.a • 48005 Bilbao

☎ 94 479 00 70 ☎ 94 4790071 • bakeaz@bakeaz.org • www.bakeaz.org

Bakeaz ikerkuntzan diharduen gobernuz kanpoko erakundea da, 1992an sortutakoa. Unibertsitateari, bakezaletasunari eta ingurumenaren defentsari lotutako pertsonen ahaleginaz sortu zen. Bere helburua gogoetarako eta ekintza hiri-tarrerako irizpideak finkatzen laguntzea da, ondo-ko gai hauen inguruan: nazioarteko harremanen militarizazioa, segurtasun politikak, armen produkzio eta salmenta, ekonomia eta ekologiarren arteko harreman teorikoa, politika hidrológicoak eta uraren kudeaketa, Tokiko 21 Agendarako prozesuak, lankidetza politikak edota bakea eta giza-eskubideen aldeko heziketa.

- Xede horri begira, espezializatutako liburutegia osatu du. Ikerketak eta azterlanak egiten ditu aditu sare zabal baten laguntzaz. Berak edo Worldwatch Institute, ICLEI eta UNESCO bezalako nazioarteko erakundeek egindako ikerketak argitaratzen ditu liburu eta buletin bilduma desberdinetan. Ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak antolatzen ditu. Aholkularitza lana egiten du erakunde, instituzio eta hedabideentzat. Artikuluak argitaratzen ditu prentsan eta teoria-aldizkarietan eta mintegi eta biltzarretan parte hartzen du.

5. Gernika Gogoratz Artekalea 1, 1.a-E • 48300-Gernika-Lumo

☎ 94 625 35 58 ☎ 94 625 67 65 • gernikag@gernikagogoratz.org

www.gernikagogoratz.org

Gernika Gogoratz Zentro dinamikoa eta independentea da, gizartearen gertatzen diren aldaketak aintzat hartuz, Bake Kulturaren garapenean lanean jarraitzeko giltzarri berriak bilatzen dituen. Gure historiak, orainak eta bake positiboaren etorkizun ikuspegiak abiarazitako lanean gidatzen gaituzte, eta lanean jarraitzeko gogoan

berrindartu bake jasangarri eta iraunkorren ametsen. Halaber, jakin behar duzu gizartearekin konprometitutako eta Bakearen Kulturaren giltzarriak zabaltzeko bokazioa duen Zentro honetako lantaldea eskaini ahal izango dizun gutzirako prest daukazula, bai proposamenean arloan, bai lankidetzaren arloan ere.

6. Bakea Orain

Hurtado Amezaga 4, 2.-Bulegoa 2 • 48008 Bilbao
☎ 94 423 32 58 📠 94 415 11 00 • bakeorain@euskalnet.net • www.bakeorain.org

1992 urtean Euskadiko Erakunde Bakezale gisa aurkeztu ginen publikoki eta "biolentzia politikoren amaiera bizkortzea" zela gure helburu nagusia aitortu genuen, horregaitik erakundeari emandako izena Bakea Orain/Paz Ahora izan zen.

Erronka hau lortzeko era eraginkorretako bat hiritarrek biolentziaren aurka paper aktibo bat hartzean zetzala uste genuen, ordurarte, lan hau politiko eta polizien esku ia soilik zegoelarik.

Arazo honetan ezin ginela ezarri pentsatzen genuen, eta etsipenez gero eta hilketa eta sufrimendu gehiago onartu. Indarrak batu eta jasan-gaitza eta etikoki mesprezagarria zen gaitzari aurre egin behar genion.

Jadanik garai hartan, bakea lortzeko erarik eragin-korrena giza elkarrizketaren prozesua zela uste genuen. Elkarrizketa hau, aldiz, biolentziaren gaitzespenetik, askatasunatik eta elementu distorsionatzaile barik egin behar zela esaten genuen.

Guk bultzatu ditugun ekimenetan, biolentziaren gaitzespenaren fasea gainditzen saiatu gara. Urrats bat gehiago aurrera ematean ahalegindu

gara eta euskal hirritaren aldetik inplikazio zuzenago bat bultzatu nahi izan dugu.

Gaur egun, biolentziaren kontrako jarrera edukitzea ez da jadanik nahikoa; aurrerago joan behar dugu eta gaurtik ateratzea biharrera heltzean saiatu behar gara. Bihar bat non edonork askatasunez aukera dezakeen, beldurrik gabe eta naturaltasunez, eta hori egiteagatik automatikoki alde batean edo bestean dagoela pentsatu gabe.

Inposatutako konponbideek ez dute ezertarako baliio, ekintza hauek gustora ez daudenen portzentaia berdina edota handiagoa sortuko bait luke, nahiz eta gustora ez dauden hauek alde kontrakoak izan.

Jarraian, orain dela gutxi garatu ditugun bi ekimen aurkezteko gustoa dugu, biak, noski, aipatutako ispirituan oinarrituz:

- Argitalpena: "Baina, zer arraio gertatzen da hemen?"
- Gida didaktikoa: "Ikasi bakea egiten" (Gure bakea landuz kanpainaz arduratzen diren irakasleentzako orientabide pedagogikoak). Eranskina, cd: "Beste eskola egun bat"

7.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Autonomía 44, behea • 48010 Bilbao
☎ 94 443 61 43 📠 94 444 81 71 • bilbao@egk.org • www.egk.org

EGK honako ildo estrategikoetan oinarritutako lana gauzatzen du:

- Gazte elkartegintza eta partaidetza bultzatu.
- Gazteen bizi baldintzak hobetu.
- Gazteen gizarteratze positibo bideratu.
- Euskadin dagokigun Gazteria Politika duina ezarri eta ebaluatu.

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren autonomia zein bere garapenerako beharrezkoak zaizkion baldintzak bermatu.
- Bakean eta adiskidetzan biziko den gizarte baten eraikuntzan lagundu.
- Gizarte justu baten eraikuntzan lagundu.
- Gizarte irekiago baten eraikuntzan lagundu.
- Berezkoa, bizia eta anitza den kultura daukan gizarte baten eraikuntzan lagundu.

8.

Pedro Arrupe GSEE Institutua

Deustuko Unibertsitatea • Unibertsitateen Etorbidea 24 / E • 48007 Bilbao

1 Posta Kutxatila • 48080 Bilbao

☎ 944 139 102 ☎ 944 139 282 • derechos.humanos@deusto.es

www.idh.deusto.es/

Zabalkunde programaren barruan:

- Institutuak dokumentazio eta ikerketarako gela bat dauka bere egoitzan. Gela hau ordenagailuz hornituta dago. Fondo bibliografikoak Unibertsitateko Liburutegi Nagusian daude. Nazioartean giza eskubideen arloarekin zerikusia duten dokumentazio zentroekin ere harremanetan gaude.
- Argitalpenak (hau ere zabalkunde progr. barruan)
- Gómez del Prado, J. L. (1998), *Operaciones de mantenimiento de la paz.*
- Gómez Isa, F. (2000), *La participación de los niños en los conflictos armados.*
- García Izquierdo, B. (2002), *Una nueva oportunidad para la prevención de conflictos. Análisis comparativo de las políticas de Estados Unidos*

y de la Unión Europea sobre la prevención de conflictos violentos.

- Cabanas Díaz, A. y Del Cid Vargas, P.I. (2003), *Guatemala: derechos humanos en tiempos de paz.*

Ikerketa **programaren barruan**, aldiz, helburua kulturantzeko errealitate berriak eta nortasun kolektiboengatik sortutako gatazkak aztertzea da, diziplinantzeko ikuspegi zabal batetik. Ikuspegi horretan bereziki garrantzi eta gaurkotasan handiko gaiak sartzen dira: migrazio prozesuen ikuspegia giza eskubideak ardatz harturik, eta gutxiengoak eta herri indigenak onartzea eta babestea.

9.

UNESCO Etxea Alameda de Urkijo, 6o ppal. dcha. • 48011 Bilbao

☎ 94 427 64 32 ☎ 94 427 25 48 • nfo@unescoeh.org • www.unescoeh.org

EAeko **UNESCO Etxea**-Centro UNESCO Gobernu Kanpoko Erakundea da, eta 1991n sortu zen, UNESCOren (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) printzipioak, programak eta jarduera ildoak EAEn zabaltzeko. Gainera, informazioa, dokumentazioa eta esperientziak trukatu nahi ditu, nazioartean aritzen diren beste erakunde batzuekin bereziki (governukoak eta gobernu kanpokoak).

UNESCO Etxeak arlo hauek lantzen ditu bereziki:

- HEZKUNTZA ETA GAZTERIA
- INGURUMENA

- GIZA-ESKUBIDEAK ETA BAKERAKO KULTURA
 - Bakerako kultura eta bortxakeriarik eza sustatzea
 - Giza eskubideak
- GARAPENERAKO LANKIDETZA
- HIZKUNTZAK
- DOKUMENTAZIO ZENTROA

10. ITAKA – Escolapios Fundazioa

Juan de Ajuriaguerra 15 behea • 48009 Bilbao

☎ 94 424 49 54 ☎ 94 423 32 77 • itaka@epvasconia.com • www.epvasconia.com

Guk uste dugu posible dela mundua Jainkoak nahiko lukeen bezala antolatzea, eta horrexen alde lan egitea aski dela biritza asebetetzeko. Horretarako, biderik laburrera geroko belaunaldien heziketa dela uste dugu, Jesusen Berri Ona iragartzeko eta ingurua eraldatzeko konpromezua, biritza osoa horretara eskainiz.

Gu guztiok batzen gaitu gizateriak Itakara iristeko izan duen ametsak. Inongo mapatan agertzen ez den irla da Itaka, baina nabigatzaile guztiak darabilte gogoan. Ezin ikus dezakegun arren, bidaia miragarria da hara iristeko xedez antolatu bada: bidaideenganako konfiantza eta iristeko itxaropenaz. Honetan guztian Jainkoaren beraren presentzia soma dezakegu.

Hauxe da egokitu zaigun lana, gure jatorrizko aitzindarien esanetan: “Errukia eta Letrak errepublikaren Eraldaketarako” (San Jose Kalasanz), edota gaurkoen pentsaeran: “Berri Ona zabaldu, mundua eraldatzeko hezkuntza bultzatuz”. Horrekin bat egiten dugun banaka nahiz taldeka.

Fundazioaren ohiko jardueraren oinarrian, Bakearen alde lan egiteko borondatea dago, giza-

eskubideen errespetua eta tolerantzia eta bakebidezko elkarbizitzaren beharra txertatuz gizartearengan. (Helburu hau ekintza praktikoetan islatzeko, Bakearen Astea antolatzen da Calasancio-Eskolapioak ikastetxearekin batera, munduan eta Euskal Herrian bakea lortzeko premiaren inguruan. Sentsibilizazio kanpainak ere egiten dira eta amaitzeko, Bakearen aldeko Globada izeneko elkartasuneko ibilaldia antolatzen da Bilboko kaleetan barna, ikastetxeak, parrokiak eta taldeak gonbidatuz...)

Itaka - Escolapios Fundazioa bi erakunde hauen orain arteko elkarlanaren ildotik sortua da: alde batetik, Itaka Elkarte eta Itaka – Eskolapioen A-naitasuneko Komunitateak eta bestetik Eskolapioen Ordena.

Elkarekin lan egiteko konpromezua da, mundu hobe baten alde, zailtasunak dituztenen mesedetan, gizarte zuzenagoa eta batez ere gizabergo eta heziagoa lortzeko helburuaz, Itakako irlarekin amets egitea ez baita nahikoa, errealitate bihurtzen ahalegindu behar dugu orain eta hemen.

No dudaría (Antonio Flores-en kantua)

...Si pudiera olvidar todo aquello que fui, si pudiera borrar todo lo que yo vi, no dudaría, no dudaría en volver a reír.

Si pudiera explicar las vidas que quité, si pudiera quemar las armas que usé, no dudaría, no dudaría en volver a reír.

PROMETO VER LA ALEGRIA, ESCARMENTAR DE LA EXPERIENCIA, PERO NUNCA, NUNCA MAS USAR LA VIOLENCIA (Bis)

Si pudiera sembrar los campos que arrasé, si pudiera devolver la paz que quité no dudaría, no dudaría en volver a reír. Si pudiera olvidar aquel llanto que oí, si pudiera lograr, apartarlo de mí, no dudaría, no dudaría en volver a reír.

PROMETO VER LA ALEGRIA... (Bis)

10 Film

Gehiago ikasgelan lantzeko

1. "Unico testigo". DBH 1.
2. "The War". DBH 2.
3. "Grita libertad". DBH 3.
4. "Missing". DBH 4.
5. "Cadena de favores". DBH
6. "The boxer". BATXILERGOA 1.
7. "Ghandi". BATXILERGOA 2.
8. "Los gritos del silencio". BATXILERGOA.
9. "Senderos de gloria". BATXILERGOA.
10. "La marcha". BATXILERGOA.

AMETS ("Al Vent"-Raimon y Sabin)

Amets, bizitz amets, gazte amets, beti amets, bildur gabe gure ametsa. Eta denok ilun, egi billa, pake billa, argi billa, Jainko billa.

Bizitzak min ematen du, negarrez jaio ginan, maitasun gabe gabiltza, baina guk, berriz, amets...

Gizonak zerbait behar du bizi den mundu hontan, gezurrak min ematen du, baina guz, berriz, amets...

10

Webgune

1. www.unesco.org/education/pdf/34_57_s.pdf
2. www.fuhem.es/portal/areas/paz/index.asp
3. www.pazyjusticia.com
4. www.fund-culturadepaz.org
5. www.redepaz.org
6. www.edualter.org
7. www.bantaba.ehu.es
8. www.amnistiainternacional.org
9. www.noviolencia.org
10. www.pangea.org/sedupaz/

www.

19

10

Pensamendu

1. “Bakerako heziketan ondo uztartu behar dira asalatzeko ahalmena, disidentzia eta espiritu kritikoa... eta aldi berean, gatazkak bakebidean gainditzeko gaitasuna”.
2. “Hiltzen dakitenen artean badakit indarkeriarik eza aldarrikatzen; ezinezkoa zait heriotzaren beldur direnen artean” (Ghandi)
3. “Indarkeriarik gabeko ekintzak adiskidetzeari eta justiziarik dituen helburu, ez garaipena”
4. “Espiritu sendoak aurriritzi, intolerantzia eta basakeriaren uztarritik askatu dira... Geroko belaunaldiak eskolatuagoak eta heziagoak izango dira, eta ondorioz, zoriontsuagoak.” (D’Alembert eta Diderot. XVIII. m.)
5. “Aberatsek elkarren artean gerra egiten dutenean, pobreak dira hiltzera doazenak.” (Sartre, Jean Paul)
6. “Bonba atomikoari aurre egiteko moduko armarik dagoen ala ez galdetu zidatenean, armarik onena proposatu nien: Bakea.” (Einstein, Albert)
7. “Mihiaz ezin aska daitekeen korapilo politikoa hortzez askatzeko metodoa da gerra.” (Bierce, Ambrose)
8. “Gerrak garaileak ergeldu eta garaituak erresumindu egiten ditu.” (Nietzsche, Friedrich Wilhelm)
9. “Irrigarria, ikaragarri irriagarria da bakearen izenean gerra egitea...”
10. “Legamia orearentzat bezalakoxea da bakea munduarentzat.” (Talmud)

10

Esaldi bakeari buruz

Rigoberta Menchu. Bakearen Nobel Saria 1992

“Elkartasunezko epidemia batez gaixotu behar dugu guztiok mundu osoa kutsatu arte”

Mahatma Gandhi. Indiako politikari eta pentsalaria

“Indarkeriaz lortzen denari indarkeriaz soilik eutsi dakioke”

John Hume. Bakearen Nobel Saria 1998

“Indarkeria dagoen tokian beti da posible eta desiragarria bakea ezartzea”

Martin Luther King. Bakearen Nobel Saria 1964

“Txorien antzera hegan egiten eta arrainak bezala igeri egiten ikasi dugu; baina ez dugu ikasi haurride bezala bizitzeko arte xumea”

John F. Kennedy. EEBBetako Presidentea

Gizakiak azken puntua jarri behar dio gerrari, edo gerrak azken puntua jarriko dio gizakiari

Nelson Mandela. Bakearen Nobel Saria 1993

“Aske izatea da bestea errespetatzea”

Desmond Tutu. Bakearen Nobel Saria 1984

“Sistema ekonomikoa txarto dabilenean arrazakeria sortzen da”

Mihail Gorbachov. Bakearen Nobel Saria 1990

“Gardentasuna eta elkarrizketa behar ditugu mundua hobeto antolatzeko”

Willy Brandt. Bakearen Nobel Saria 1971

“Bidegabekeria bat onartuz bide ematen zaie ondorengo bidegabekeria guztiei”

Jose Antonio Agirre Lekube. Eusko Jaurlaritzako Lehen Lehendakaria

“Askatasuna da mundua batuko duen gauza bakarra”

Bilboko Emilio Campuzano institutuko ikasleak

“Pertsonak usoen begiez eta usoen pertsonen begiez begiratzen ikasten dutenean, gizateriak bakea aurkituko du”

Nola aldarrikatu munduan justizia eta bakearen berri ona?

(Nazioarteko Biltzar batek erantzun du. Vatikanok bultzatutako topaketa horretan, ia 100 herrialdek parte hartu zuten)

Erroma, 2004/10/28.- Hiru irizpide zedhaztu zituen asteazkenean Angelo Sodano kardinalak –Vatikanoko Estatu idazkariak- Aita Santuaren izenean, osasun egoera larrian dagoen mundu honetan justizia eta bakea sustatzeko: begiak zabalik eduki, bihotza sentibera eta eskua gertu. Hitz hauen bitartez inauguratu zuen kardinalak Erroman, Justizia eta Bakearen alde lan egiten duten Elizako erakundeen arteko I. Mundu Biltzarra. Ekitaldian, erakunde horietako 300 ordezkari inguru egon ziren, 92 herrialdetatik etorrita, “Justizia eta Bakearen Berri Ona Iragarri” lemaaren inguruan bildurik.

Zenbait nazioarteko erakunde 15 eskualdetako apezpiku-batzarren ordezkariak ere parte hartu dute Justizia eta Bakerako Kontseilu Pontifikalak antolatutako topaketa honetan. Lanak larunbatera arte luzatuko dira ateak itxita. Kardinalaren esanetan, begiak zabalik edukitzea garaiaren zeinuei begira egotea da, mundua Jainkoaren begiez ikusteko, maitasunezko begiradaz, bazterkeriarik gabe, eta Jainkoa gaur egungo pertsona eta gertaeretan ikustatuz, Radio Vaticanak dioenez.

Bestalde, bihotza sentibera edukitzea besterenganako arreta eta atsegina zabaltzea da, egoismoaren itxikeriei bizkar eginez. Aldi berean, eskua gertu eduki behar da une oro ongia, obretan islatzen ez den fedea hilda baitago, esan zuenez. Izan ere –gaineratu zuen- obra horien testigantzak emango dio sinesgarritasuna Elizaren mezu sozialari, barruko koherentziak eta logikak baino areago, «Centesimus Annus» entziklikak dioen bezalaxe. «Historikoki Elizak justizia eta bakea sustatzeko konpromezua hartu du bere gain –esan zuen Sodano kardinalak- bai instituzio bezala, baita eliztarren bitartez ere».